

PRENTSA
DOSIERRA

TABAKALERA SOINUTAN *Ibilbidea eraikina zeharkatuz* Uztailak 11 – irailak 27

Achim Wollscheid
Pe Lang
Will Schrimshaw
°Sone
Lerraum []
Marcello Liberato
Juan José Aranguren
Patxi Araujo
Mikel Arce
Edwin van der Heide

Kontzertuak:
Charlemagne Palestine
Francisco López

Xabier Erkiziak pentsatu eta zuzendutako proiektua

Ordutegia:
Asteartetik igandera: 11:00 – 14:00 / 17:00 – 20:00
Sarrera doan

BISITA GIDATUAK

Egunero: 18:00 (euskaraz) / 19:00 (gaztelaniaz)
Taldeentzako erreserbak: 620 767 095

ERAKUSKETARI BURUZKO MICROSITEA
www.tabakalera.eu/tabakalera-soinutan



TABAKALERA SOINUTAN

Hamabi soinu artistaren interbentzioak eraikinean zehar

Uztailaren 11tik irailaren 27ra Tabakalera beste modu batera ikusi, bizi eta entzuteko aukera zabalduko da. Eraikineko aretoetan barna ibilbide bat osatuko duten soinu instalazioek, eskulturek, ikus-entzunezko lan interaktiboek... Tabakalera soinu bidez irakurtzeko eta deskubritzeko modu berri bat proposatzen dute. *Tabakalera Soinutan* soinuak gidatutako ibilbidea da, soinu arteari eskainitako erakusketa bat izateaz gain, Tabakalera bezalako eraikin berezi bat ezagutzeko aukera ematen duen gonbidapena.

Nazioarteko zein bertako hamabi artistek aurkeztu dituzte euren lanak Tabakalera. Lan horietako batzuk erakusketa honetarako propio sortutako instalazioak dira, eta beste batzuk berriz, eraikinaren espazio indartsuetara egokitutako lanak. Erakusketan parte hartzen duten artista guztiek soinua dute ikerketarako eta esperimentaziorako lehengai, eta euren proposamenak lotzen dituen haria espazioarekin eta publikoarekin eraikitzen duten harremana da. Erlazio horri esker, ibilbideko aretoetan aurrera egin ahala, espazio horietaz dugun pertzepzioa aldatzen joango da.

Artistek egindako interbentzioez gain, eraikina bera eta baita bisitariak ere erakusketan eragile aktibo bihurtzen dira. Artelanei esker espazioaz dugun pertzepzioa aldatu egiten da eta, era berean, lanetako asko eraldatu egiten dira bisitarien esku-hartzearen ondorioz. Beraz, hiru elementuon artean lotura estua sortzen da, nolabait, elkarren menpeko bilakatzen dira.

Tabakalera Soinutan erakusketaren beste ezaugarri funtsezko bat eraikinean bertan datza, ibilbideak zeharkatzen dituen hainbat espazio lehenengoz zabalduko baitira erakusleku gisa. Ibilbideak beheko solairua eta lehenengoa hartzen ditu eta bisitaria elkarren artean oso ezberdinak diren fabrikako txoko eta aretoak deskubritzera eramaten du.

Proiektu honekin nolabait hasiera ematen zaio eraikina artearentzat eta artearen bidez eraldatzeko prozesuari.



Xabier Erkiziaren testua:

"Musikak ez du espazioa betetzen, espazioa sortu egiten du "
Ernst Bloch, Zur Philosophie der Musik, 1972

Egunero bizitzen ditugun espazioen entzunaldi erneak lekuak beste modu batera entzuteko, eta beste ikuspegi batetik ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Soilik entzulearen jarreraren bidez, zaratak musika bihurtu daitezke, espazio hutsak soinuak betetako mundu aberats eta ezezagunak, eta elementu arkitektonikoak musika tresna. Entzumena beraz, gure ingurunean kokatzeko zentzu erabilgarria izateaz gain, lekuak eta egoerak berriz ezagutzeko tresna ezin hobe da, hormek gordetzen dituzten sekretuak, tartean musikak, errebelatzeko lanabesa. Izan ere, soinuek edo musikak zentzua galtzen dute espaziorik ez dutenean, eta espazioek dimentsioak galtzen dituzte soinurik ezean. Batak bestearen beharra du nortasun edo izaera jakin bat eraikitzerako orduan. Luigi Nono konposatzaile italiarrak modu argian azaltzen du erlazio banaezin hau: *"Soinuak espazioa irakurtzen du, eta espazioak soinua azaltzen"*

Eta behin besteen hitzak biltzen hasita, Alvin Lucier izeneko bertze konposatzaile eta soinu-artista, kasu honetan iparramerikar batenak gogora ekartzea merezi du. Honela dio berak: *"Gela bakoitzak bere melodía gordetzen du, norbaitek edo zerbaitek entzungarri egiten duen arte"*

Espazioa eta soinua ukiezinak diren bi materia dira, irristakorrak eta iheskorak bezain beharrezkoak gure bizitzarako. Eta beharbada horregatik moldatzen ditugu gure beharretara, Erakusketa honen bidez Tabakalerako hormek gordetzen duten musika azaltzen saiatuko gara, edo nahiago baduzue soinu bidez eraikina bera irakurtzeko, ezagutzeko modu berri proposatuko dugu. Horregatik eta horretarako soinuak gidatutako ibilbide bat sortu dugu, soinudun arteari eskainitako erakusketa bat izateaz gain Tabakalera bezalako nortasun handiko eraikuntza bat ezagutzeko aukera ematen duen gonbidapena.

Azken finean, soinuak dituen forma eta izaera ugarien bidez, Tabakalerak gordetzen dituen itxura eta forma arkitektonikoak ezagutzeko aukera sortu dugu.

Orain soilik erne entzuten hasi behar dugu, ez da gutxi.



ARTISTA PARTE HARTZAILEAK

ACHIM WOLLSCHIED (Alemania)
www.selektion.com

Achim Wollscheid, azken hamarkadatan egindako lanagatik, nazioartean musika esperimentalaren erakusgarri nabarmenenetakoa bilakatu da. Bere ikerketek soinuaren, argiaren eta espazio arkitektonikoaren arteko harremanean sakontzera eramanez, eta horren adibide dira izaera interaktibo handia duten bere lanak. Sistema informatikoen ekoizpenaz eta banaketaz arduratzen den Selektion plataforma alemaniar garrantzitsuaren sortzaileetako bat izan zen.



Wollscheiden lanean objektu artistikoa egoera jakin bati erantzuten dion sistema bihurtzen da. Soinuei erantzuten dieten argi sistemak, edo jendearen mugimenduei erantzunez pizten diren soinuak dira bere instalazio lanen protagonista. Modu horretan, artelanak objektu fisiko soila izateari uzten dio eta espazio sozialen mugak zeharkatzen dituen tresna bihurtzen da.

PE LANG (Suitza)
www.pelang.ch

Pe Lang, Zurichetik eta Berlinetik lan egiten duen soinu artista da. Euskarri desberdinetan aurkeztu ditu bere lanak, bai soinuak instalazio, zuzeneko emanaldi eta musika konposizio modura, eta hainbat jaialdi eta galeria garrantzitsutan aurkeztu izan ditu. Bere lanek sistema zinetiko minimalista eta dotoreak dituzte oinarri, soinu iturri bezala erabiltzen dituen berak sortutako hainbat gailu eta elementu erabiliz.

Falling Objects: one

Tabakalera lehen aldiz erakutsiko duen lan honek 12 gailu berezi eta 100.000 metalezko esfera erabiltzen ditu. Izoztutako euria bailitzan, 12 makina jaurtitzaile hauek gelaren sabaitik bolatxoak jaurtitzen dituzte, eta hauek, era berean, zorizko musika moduko bat sortzen dute. Musika jakin bat sortzeaz harago, mekanismo honek entzumenaren bidez espazioaren izaeraz jabetzera gonbidatzen gaitu.

WILL SCHRIMSHAW (Erresuma Batua)
www.willschrimshaw.net

Will Schrimshawen lana soinuaren bidez ingurunearekin sortzen den hartu-emanen oinarritzen da. Jakin-min hau bereziki sortutako gailu elektronikoen erabileraren bidez gauzatzen da, eta hauek aldi berean, tresna interaktiboak diren heinean, bisitariak eta hiritarrak soinu sortzaile bihurtzen dituzte. Bere lanek soinua mugimenduaren katalizatzaile modura eta espazio aktiboak eraikitzeko material gisa erabiltzen dute.





Little Helpers

Little Helpers (laguntzaile txikiak) izeneko gailuek materiaren erresonantzia-ezaugarriengan jartzen dute arreta. Protesi bibratzaile moduko hauek soinuaren indar materiala zabaltzen eta azaleratzen dute, baita hauek ingurunean duten eragina ere. Gailuok espazio arkitektonikoak erabiltzen dituzte, berau osatzen duten elementuen soinuazko ezaugarriak, eta aunitzetan gure entzumenarentzako oharkabeaz pasatzen direnak, erakustera emateko.



°SONE (Frantzia)

<http://o.sone.free.fr/>

SONE (irakurri “osone”) arkitektura eta soinuaren arteko erlazioak aztertzen dituen Frantziako soinu-artista talde bat da. Christophe Havard, Hughes Germain eta Yannick Daubyk osatzen duten hirukote honek lantegiak, tailerrak edo beste espazio batzuk erabiltzen ditu bere lanak garatzeko, horiek gordetzen duten “musika” bereizi eta ondoren, horrekin musika konposizio berriak sortzen dituzte. Azken finean, ariketa hauen bidez, °Sonek gelak, eraikinak eta bestelako elementu arkitektonikoak musika-tresna bihurtzen ditu.

Kolektibo honek Tabakalera aurkezten duten lanak, eraikina osatzen duten elementu desberdinen azterketa akustikoan du oinarria. Ateak, leihoak, hormak edo zoruak bibraraziz, fabrikak bizi propioa hartzen du, bere ahotsa entzunarazten du, artistak bitartekari aktibo edo agente detonatzaile bihurtuz.

LEERRAUM [] (Suitza)

www.leerraum.ch

LEERRAUM [] espazioaren, formaren eta estrukturan ikerketa oinarri duen artisten plataforma, diskoetxea eta sarea da. Erreduktionistatzat har daitekeen hurbilketa batetik abiatuz eta material desberdinen erabilera arduratsu baina aldi berean erradikal batean oinarrituta, LEERRAUM [] plataformak soinu instalazioak, erakusketak edo ekitaldiak antolatzen ditu eta CD, DVD nahiz bestelako objektuen edizio mugatuak argitaratzen ditu berau osatzen duten artistekin elkarlanean. Egun, LEERRAUM [] 15 nazionalitate desberdinetako 45 artistak osatzen dute.

Erakusketa honetan, lasaitasunean entzutera gonbidatzen duen kanal anitzeko soinu instalazio bat aurkezten dute. Instalazio hau osatzen duten konposizioek soinuaren eta espazioaren arteko harremanei arreta berezia eskaintzen diete, Asher, Andy Graydon, Richard Garet, Kenneth Kirschner, Yuzo Kako, Fourm, Mahmoud Refat, Mise en Scene, Pe Lang, Marihiko Hara eta Zimoun-en lanekin.



MARCELLO LIBERATO (Italia)

Marcello Liberato musika eginez jaio zen eta musika eginez bizi da. Bere lanek soinuaren izaera anitzak eta entzumenaren esperientziaren misterioak miatzen dituzte, zentzuak asetzen dituzten egoerak eraginez. Horretarako, nagusiki gure ingurunetik berreskuratu eta birziklatutako gaiak eta materialak erabiltzen ditu, egunerokotasuna arte eta esperientzia artistikoa eguneroko bizipen bilakatuz.

LaberintOído

Nonahi topatzen ditugu labirintuak gure inguruan, hiriak, etxeak labirintu izan daitezke, baita gure entzumena ere. Liberatok elementu eta material desberdinez osatutako espazio labirintikoa proposatzen digu, belarriz gurutzatzekoa eta entzumenaren bidez ezagutzekoa. Zaratatik isiltasunerako bidaia bat. Azken finean, labirintu bat beste labirintu batean barna.

JUAN JOSÉ ARANGUREN (Donostia)

Eskultore donostiarra. Izaera pedagogiko handiko zenbait egitasmo artistikotan parte hartu izan du, hala nola, Arteniñon (83-90) edo ondotik sortutako Ikertze laborategi artistikoetan (90-99). Geroztik nagusiki eskulturan eta zinean egiten du lan, bakarka nahiz Zine Animau (ikus-entzunezko multiproiekzioak) bezalako taldeetan. Hainbat erakusketa kolektibo eta bakarkako egin ditu eta bertze hainbertze sari jaso du bere lan eskultorikoagatik.


Isiltasunezko partiturak

Isiltasunezko partiturak isiltasuna, soinuaren hizkuntzan hain garrantzitsua den kontzeptua, ikusizko lengoaiaren bidez errepresentatzeko saiakerak dira. Marraren bidez (marra muga edo edukitzaille modura ulerturik) sortutako Espazio Planoaren desokupazio ariketak dira. Hortik dator bai marraztutako marren garrantzia, baita marrazturik egon gabe ageri direnena ere (benetako lodierarik gabeko marrak, dimentsio bakarrekoak). Emaiza gisara, beraien artean jostatzen diren espazio zuriak, hutsak, isilak ageri dira.

PATXI ARAUJO (Iruñea)

www.patxiaraujo.com

Artista eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako fakultateko irakasle titularra. Plastikaren munduan duen esperientzia zabalaren ondorioz, ikusizko programazioaren bidez izaera interaktiboa eta murgirtzailea duten aplikazio eszenografikoak sortzen ditu. Bakarkako nahiz taldeko erakusketa askotan parte hartu du eta hainbat sari eta aipamen jaso ditu.



H.D.H.

H.D.H. soinu-zko eta ikusizko paisaia modura ulertutako datu-ikustarazpen lana da. Bere estruktura eta soinu izaera etengabe aldatzen duen itsaso sintetiko baten bidez, lan honek hodeiartzaren ikusmira proiektatzen du. Elementu hauen ordena, frekuentzia, kalitatea eta kantitatea, bideo seinale baten zaratak eta espazio horretan kokatzen den pertsonak sortzen dute. Ondorioz, H.D.H. lanak bideozko zarata horrek eragindako olatualdi jarrai bat erakusten du, bisitari/ikuslearen mugimendu eta kokapenaren arabera, noiznahi bere olatuak eta haizea altxatzen dituen.

MIKEL ARCE (Bilbao)

Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederretan lizentziatua ikus-entzunezkoen espezialitatean, eta 1983tik fakultate berean irakasle. Azken urteotan hainbat instalazio egin ditu, betiere soinuaren fenomenoaren inguruan.

***.WAV**

*.WAV soinua materializatzea helburu duen soinu eskultura da, entzumena sentsazio bilakatu nahi duena, aldi berean dimentsionala eta ukigarria, behaketa eta zentzumenen erlaxazio ariketa bat. Honela, ura langai gisa erabiliz, eta 4 azpilez osatutako egitura baten bitartez, 4 frekuentzia-soinu oso oso baxurekin osatutako konposizio sekuentziatua ikusten dugu. Emaiza gisa, ura modelatua, "zizelkatua" eta kontrolatua ageri zaigu, material plastikoa bailitzan.

EDWIN VAN DER HEIDE (Herbehereak)

www.evdh.net

Edwin van der Heidek soinuaren, espazioaren eta interaktibitatearen artean egiten du lan. Zaila da bere lana soinu artearen edo media-art-aren ezaugarrien arabera definitzea, hain zuzen, alor horien arteko mugetan jarduten baitu. Zentzu honetan, erabiltzen dituen bitartekoak ez dira bitartekaritza egitera mugatzen, aldioro aztertzen eta birdefinitzen dute beren burua.

LSP - Tabakalera

1815an Nathaniel Bowditch zientzialariak uhin sinusoideen bidez ikusizko eredu eta patroiak sortzeko modua deskubritu zuen. Uhin horiek tonu entzungarri garbiak ere sor ditzakete, eta ondorioz, irudiaren eta soinuaren arteko erlazio zuzenak sortzeko aukera ematen dute. Zentzu honetan LSP lanak soinuaren eta hiru dimentsioko irudien arteko harreman hori ikertzen du, laser bidezko proiektzioak eta soinu digitalak erabiliz. Elementu horien konbinaketaren bitartez, artistak espazioaren pertzepzioarekin jolasten du, bisitariak espazioaz duten ikuspegia etengabe aldatzera behartuz eta sinestesia modura gertatzen diren zentzumenen ilusioak sortuz.





TABAKALERA SOINUTAN Xabier Erkiziak pentsatu eta zuzendutako proiektua da

Xabier Erkizia (Lesaka, 1975)

Xabier Erkizia artistaren lana musikaren eta soinuaren harreman eta norabide ezberdinen bilaketan eta sakontzean oinarritzen da. Bere proposamena ideia, jende, baliabide, soinu eta materialen nahasketa da, izan instalazioetan, bakarkako emanaldietan, hitzaldietan, tailerretan, taldekako inprobisazioetan, lan dokumentaletan nahiz bestelako proiektuetan.

Orain arte egindako lanetan mota askotako proiektuak eta kolaborazioak gurutzatzen dira; rocka, elektronika, elektroakustika, inprobisazioa, etab. betiere, esperimentazioaren ikuspegi zabal batetik begiratuta. Bestalde, bakarka burutzen dituen lanetan, proposamen erreflexiboagoak egiten ditu, jarrera barnerakoiagoa eta minimalistagoa hartuz.

Lan artistikoaz gain, Erkiziak hainbat ikerketa proiektu eta soinu praktika esperimentalen analisi zuzentzen ditu, eta harreman estua du nazioarteko sortzaile sare zabal batekin. Komunikabide ezberdinekin kolaboratzen du eta hainbat web plataformatako zuzendaritzako kide da.

Diziplina anitzetako sortzaileekin lan egin izan du, hala nola, Eddie Prévost, Mattin, Nishide Takehiro, John Oswald, Alejandra & Aeron, Café teatro, Isabel Herguera, Izibene Oñederra, Maialen Lujanbio, Vuk Jrevemovic, TV Pow, Alan Curtis, Billy Bao, Akauzazte, Tzesne, Tüsüri, Iban Urizar, Yannick Dauby, Raimo Benedetti, Thomas Roher, Miguel Barella, Joel Stern, Asier Gogortza, Jon Benito, Enrike Hurtado & Thor Magnusson....

Linkak:


www.ertza.net
www.arteleku.net
[www.arteleku.net\(audiolab](http://www.arteleku.net(audiolab)
www.uncommonsounds.org



IBILBIDEAREN PLANOA


Lehenengo solairua

1. Achim Wollscheid
Sartu - Irten
2. Pe Lang
Falling objects: one
3. Will Schrimshaw
Little Helpers
4. Lerraum []
Listening Space
5. Marcelo Liberato
LaberintOído



Beheko solairua

5. Marcello Liberato
LaberintOído
6. °Sone
7. Juan José Aranguren
Isiltasunezko partiturak
8. Patxi Araujo
H.D.H.
9. Mikel Arce
**.WAV*
10. Edwin van der Heide
L.S.P.- Tabakalera
11. Achim Wollscheid





JARDUERA PARALELOAK

Irailak 9 eta 10, 20:00etan

Ertz Jaialdiarekin elkarlanean antolatutako kontzertuak

FRANCISCO LÓPEZ (Espainia)

www.franciscolopez.net

Francisco López musika esperimentalaren eta soinuuzko artearen nazioarteko eszenako izenik nabarmenenetakoa da. Berak sortutako soinu lanen bilduma amaigabea 180 diskoetxek baino gehiagok argitaratutako lanez osatua dago.

Lópezen soinu performanceak musika kontzertu klasikoaren topikoetatik urrun kokatzen dira. Soinuan, bere egoera puruenean, murgiltzera gonbidatzen gaituzten esperientzia indartsuak dira. Horretarako, mundu osoan zehar jasotako izaera desberdineko grabaketa bilduma zabalaz, iluntasunaz, kanal anitzeko sistema batez eta begiak estalita dagoen entzuleriaz baliatzen da.

CHARLEMAGNE PALESTINE (AEB)

www.charlemagnepalestine.org

Musika konposatzailea, performerra eta artista bisuala. Besteak beste, Philip Glass, Phil Niblock, Yoshi Wada eta Terry Riley bezalako musikariek osatzen duten belaunaldiko artista aipagarrienetakoa da Charlemagne Palestine (New York, 1945). Hutsik gabeko ibilbideari esker lortu du merezitako sona, nagusiki soinuaren munduan eta bereziki musika tonuen eta harmonikoen alorrean egindako ikerketa aberatsagatik.

Charlemagne Palestinen ahots eta piano emanaldiek entzulea bereganatzen duen indar berezia dute, erritualak diruditen esperientzia berezi eta gozagarriak sortuz.



KONTAKTUA

Rosa Zufía – Tabakalerako Komunikazioa zuzendaria
komunikazioa@tabakalera.eu
+34 943 011311
www.tabakalera.eu

TABAKALERA
Duque de Mandas 52. 20012 Donostia – San Sebastián